



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko apirilaren 24a

54. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00001. Galdera, gaixotasun mentala duten pertsonak Iruñeko Aita Menni Klinika Psikiatrikoan eta Elizondoko Benito Menni Ospitale Zentroan artatze aldera Elizondoko Jesusen Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ospitalarien Kongregazioarekin sinatutako hi tzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00002. Galdera, eremu euskalduneko eta eremu mistoko afixa elebakarrei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00003. Galdera, talentua erakartze aldera Buenos Airesko Unibertsitatearekin sinatutako hi tzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-25/PES-00004. Galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian hidrogeno berdeko planta bat eraiki tzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-25/PES-00005. Galdera, Nafarroako osasun-garraioaren oinarrien kokapenari buruzkoa. Foru Diputa zioaren erantzuna (10. or.).
- 11-25/PES-00006. Galdera, Europako NG SEM funtsei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-25/PES-00007. Galdera, oinarritzko osasun-laguntzako egiturazko erizain-lanpostuak kentzeari buruz koa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00008. Galdera, Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnosirako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoa kontratatzeari buruzkoa. Foru Dipu tazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-25/PES-00009. Galdera, enpresek Nafarroan sortzen dituzten enpleguei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-25/PES-00010. Galdera, jakiteko ea energia-kalifikazioaren ziurtagiria eduki beharra betetzen ote den. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-25/PES-00011. Galdera, jakiteko ea zer neurri hartu diren Nafarroako etxebizitza kolektiboko eraiki nek 2030eko urtarilaren 1etik aitzina B mailako edo goragoko energia-kalifikazioa izan dezaten. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).

- 11-25/PES-00012. Galdera, klima-aldaketan eta trantsizio energetikoan genero-ikuspegia betetzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-25/PES-00013. Galdera, errepideak zeharkatzen dituzten faunarendako pasabideetarako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-25/PES-00014. Galdera, Nasuvinsak Tafallako Manero Enearen orubean etxebizitzak egiteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-25/PES-00015. Galdera, AHTaren Nafarroako trazadura zehazteko egin beharreko laginetan izandako sabotajeen ikerketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-25/PES-00016. Galdera, Prodigioso Volcán enpresak egindako ekintza estrategikoen emaitzen eta inpaktuaren ebaluazioa bidaltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-25/PES-00017. Galdera, Prodigioso Volcán enpresak Nafarroa marka sustatzeko bere planean jasotako ekintza estrategikoen proposamenak bete izanaren akreditazioa bidaltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-25/PES-00018. Galdera, “Coyuntura Ambiental de Navarra” aldizkariak argitaratzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-25/PES-00020. Galdera, Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoa sortzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-25/PES-00021. Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketak pertsona juridikoei atxikitzeari edo enbargatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 11-25/PES-00022. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak NUPekin noiz sinatuko duen hura 2025etik 2028ra bitarte finantzatzeko hitzarmena, 2024ko abenduaren 23an eman baitzen horren berri. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00001. Galdera, gaixotasun mentala duten pertsonak Iruñeko Aita Menni Klinika Psikiatrikoan eta Elizondoko Benito Menni Ospitale Zentroan artatze aldera Elizondoko Jesusen Bihotz Sakratuaren Ahizpa Ospitalarien Kongregazioarekin sinatutako hi tzarmenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak Nafarroako Gobernua kirol egokitua dela-eta Nafarroan dagoen eskaintzari buruz informatzeko web bat taxutzero premiatzen duen mozioa betetze aldera hartutako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 17ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martí-

nez jaunak 11-25-PES-00001 galdera egin du, idatziz erantzun dakion.

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko konseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Nafarroako Gobernuak erabiltzaile itundu bakoitzeko zer prezio ordainduko die Ahizpa Ospitalariei Nafarroan itunduta daukan zentro bakoitzean hitzarmena indarrean dagoen urte bakoitzean?

Hitzarmena indarrean egon den urte bakoitzean zer eguneratze egin dira zentro eta erabiltzaile mota bakoitzeko?

ANADPak okupatutako plaza bakoitzeko ordaindutako hileko hitzarmeneko moduluaren prezioa baliabide eta zentro bakoitzeko honako hau da:

AITA MENNI-ANADP						
	Psiko	3. adina	GMEL	NMO	EPSZ	PTEM
2021	2.209,44	2.391,67	2.148,29	3.931,17	918,48	1.377,86
2022/01/01	2.267,73	2.626,77	2.204,04	4.067,60	950,82	1.404,08
2022/07/01	2.317,34	2.676,38	2.253,65	4.117,21	1.000,43	1.453,69
2023/01/01	2.371,71	2.742,97	2.305,85	4.234,63	1.032,77	1.478,68
2023/07/01						

BENITO MENNI-ANADP					
	Psiko	3. adina	GMEL	EPSZ	EF-Desga
2021	2.360,85	2.391,67	2.279,77	1.138,21	2.032,04
2022/01/01	2.457,97	2.699,78	2.368,64	1.175,55	2.108,12
2022/07/01	2.551,92	2.793,73	2.462,59	1.196,56	2.202,07
2023/01/01	2.595,43	2.833,39	2.502,57	1.248,79	2.366,36
2023/07/01	2.684,32	2.922,28	2.591,46	1.283,30	2.455,25

Psiko: psikologia; GMEL: gaixotasun mentaleko egoitza lagundua; NMO: nahasmendu mental organikoa; EPSZ: errehabilitazio psikosozialeko zentroa; PTEM: gaixotasun mentala dutenentzako tutoretzapeko etxebizitza; EF-Desga: desgaitasuna dutenentzako etxebizitza funtzionala.

Osasun Departamentuak okupatutako plaza bakoitzeko ordaindutako eguneko hitzarmeneko moduluaren prezioa baliabide eta zentro bakoitzeko honako hau da:

AITA MENNI-OSASUNA			
	Psiko	GMEL	PTM
2021	22,11	20,38	6,47
2022/01/01	23,56	21,66	6,72
2022/07/01			
2023/01/01	24,38	22,42	6,96

BENITO MENNI-OSASUNA		
	Psiko	GMEL
2021	23,35	21,33
2022/01/01	23,57	21,45
2022/07/01		
2023/01/01	24,29	22,06

Elizondoko Benito Menni enpresarentzat zer eragin ekonomiko dauka Benito Menniko enpresabatzordeak lansari-taulak sinatzeak edo ez sinatzeak urte amaieran?

Urte amaieran soldata taula sinatzen badu (edo aribideko urtean zehar), urte horretako 01/01etik aurrerako ondorioekin, Ospitalariak enpresak langileen ordainsariak igo behar ditu urte horretako 01/01etik, eta Nafarroako Gobernuak kostuak eguneratzen ahal ditu urte horretako 01/01etik, bai eta kasuko igoera ordaindu ere (betiere errespetatzen bada funtzionarioen igoeraren muga). Gobernuak kostuak eguneratzen ahal ditu soilik igoera funtzionarioen igoera adinakoa edo txikiagoa bada.

Nafarroako Gobernuak zer baldintza exijitzen dizkio Ahizpa Ospitalarien enpresari prezioa igo dezan? Igoera hori urtean behin egiten al da? Zerk eragin lezake prezioa aldatzea?

Hitzarmenaren 6. klausulak, kostuak eguneratzeari buruzkoak, ezartzen duenez:

Prezioak aldatzen ahalko dira soilik 13/2017 Foru Legearen 4.2 artikuluan jasotako egoeretan, hau da, kostuak eguneratu direlako edo prestazioa hobetu delako, horrek eskatzen badu prezioa kalkulatzeko kalitate estandar berrien arabera; horretarako, hitzarmena egiten duen entitateak onetsita izan beharko du aldaketa, unitate kudeatzaileak konfirmatu ondoren itunpeko entitateari egozgarriak ez zaizkion inguruabarrengatik presztaziorako beharrezko kostuen aldaketaren bat dagoela.

Itunpeko entitatearen langileen ordainsariak handitzeagatik langile gastuei egozten ahal zaizkien kostuen eguneraketak mugatzat izanen du Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan lan egiten dutenen ordainsariak izandako urteko hazkundearen portzentajea, bat etorritik Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Legeekin.

Ahizpa Ospitalariak zenbat ohe daukate edo eduki dute itundurik Nafarroako Gobernuarekin Elizondoko Benito Mennin hitzarmena indarrean egon den urte bakoitzean? Eta zenbat Iruñeko Aita Mennin?

Ez da oherik ituntzen, plazak baizik, honako hauek:

- Gaixotasun mentalerako egoitzako arreta lagundua (GMEL): 40 plaza Iruñean eta 40 plaza Elizondon.

- Gaixotasun mentala dutenentzako egoitza bati lotutako etxebizitzak (PTM): Iruña: 22 plaza, 4 plazako 4 etxebizitzatan eta 6 plazako etxebizitza batean banatuta.

- Psikogeriatriako egoitza-arreta: 30 plaza Iruñean eta 45 plaza Elizondon. (Elizondon dauden 45 plazak 30era arte murrizten joanen dira, bajak egon ahala edo plaza horretarako egokitasunik ez badago, eta 45era arte areagotzen joanen dira Iruñean. Zentro bietan psikogeriatriako plazarako egokitasuna izateari uzten diotenak mendetasuna dutenentzako egoitzako plaza izatera pasako dira).

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuarekin eskusiboki itundutako plazak ere badaude, honako hauek:

- Nahasmendu mental organikoa (NMO) dutenentzako egoitza arreta: 5 plaza Iruñean.
- Errehabilitazio psikosozialeko zentroa: 31 plaza Iruñean eta 15 plaza Elizondoko.
- Mendetasuna duten adinekoentzako egoitza arreta: 10 Iruñean eta 5 Elizondoko.
- Desgaitasuna dutenentzako etxebizitza gainbegiratua: 3 plaza Elizondoko etxebizitzan.

Plaza itunduak ez dira aldatu; hitzarmena sinatu zeneko berberak dira. GMEL plazen kopurua zentro bietan (Iruña eta Elizondo) aldatzeko auke-

ra sartu zen, betiere guztizko 80 plazak ez badira gainditzen. Gaur egun 42 GMEL plaza daude itunduta Iruñean eta 38 Elizondoko.

Nafarroako Gobernuak gutxieneko zer ratio –zuzeneko nahiz zeharkako arretakoak– exijitzen die Ahizpa Ospitalariei kategoria profesional bakoitzean erabiltzaile-mota bakoitzerako? Zer eragin du ratio horiek ez betetzeak?

Langileen inguruko exigentziak I. eranskinean ageri dira.

Baldin eta baleude, zeintzuk dira, kategoria profesional eta erabiltzaile-mota bakoitzerako, Nafarroako Gobernuak kategoria profesional ezberdinen artean baimentzen dituen ratio-baliokidetasunak?

	GMEL	Psikogeriatría	Egoitza bati lotutako etxebizitza	Hirugarren adina
Zuzeneko arreta	0,37	0,41	0,14	0,38
ERIZAINZTA	0,1	0,12		0,07
TEKNIKARIA *	0,17	0,18	0,06	0,06

*barnean hartzen du erizaintza

	Baimenen Dekretuko ratioak			
	GMEL	Psikogeriatría	Egoitza bati lotutako etxebizitza	Hirugarren adina
Zuzeneko arreta	0,28	0,35	0,05	0,29
ERIZAINZTA		0,08		0,02
TEKNIKARIA *	0,15	0,35	0,03	0,048

Elizondoko Benito Menni zentroa kudeatzen duen enpresak aurkeztu duen proposamenaren arabera, zentro horretako oheak 133 izatetik 122 izatera igaroko lirateke. Nafarroako Gobernuak nola baloratzen du proposamen hori?

Nafarroako Gobernuak betebeharra dauka Gizarte Zerbitzuen Zorroan bermatutako zerbitzuak emateko erabiltzaileei. Ezin ditugunean baliabide propioekin eman, hori egiten ahal duten entitateen eskaintza behar izaten dugu. Elizondoko plaza kopurua murriztu da arreta emateko exijitutako langileak aurkitzeko zailtasunengatik. Edozelan ere, murrizketa horrek ez die eragiten

Nafarroako Gobernuarekin itunduta dituen zerbitzuei.

Bestalde, egungo plaza kopurua apirilaren 5eko 38/2023 Foru Dekretuan jasotakora hurbiltzen da gehiago, izan ere, 16. artikuluan egoitza-zentroak espazio txikiagoak eta etxe-girokoak izan daitezzen Artikulu horretan adierazten denez, Oro har, eraikitze obra-lizentzia edo zerbitzuaren lizitazioa 2023ko martxoaren 28aren ondoren jasotzen duten titulartasun edo kudeaketaren publikoko edo titulartasun pribatuko egoitzetan, adinekoen zentroak badira, 120 toki izanen dira

gehienez biztanle anitzeko hiri edo eremuetan, 90 toki dentsitate ertaineko herri edo eremuetan, eta 75 toki, landa eremuetan edo biztanle gutxikoetan. Batentzako logelak, gutxienez, % 80 izanen dira. Landa eremuetan edo biztanle gutxiko eremuetan edo dentsitate ertaineko eremuetan dauden aurreko paragrafoko zentroetarako, 120 toki ere baimentzen ahalko dira, betiere bideragarritasun ekonomikoko salbuespenezko inguruabarrak behar bezala egiaztatzen badituzte. Desgaitasuna duten pertsonen zentroetan 50 toki egonen dira gehienez.

Nahiz eta irizpide hori ezin zaion zorrozki exijitu Benito Menni zentroari, dekretuan jasotako data baino lehenagoko egoitza delako, komenigarria da zentroak dekretura egokitu daitezela.

Nafarroako Gobernuak bateragarri ikusten al du zaintza-eredu berrian ezarritako lan-ildo estrategikoak mantentzea —ereduak pertsona eta arretaren humanizazioa jartzen ditu erdigunean— eta Benito Mennirako enpresak egiten duen planteamendua, non erabiltzaileak logelak partekatu behar dituzten?

Benito Menni ospitaleak gure Komunitatean eta gure herrialdean dagoen osasuneko profesionalen krisiaren eragina jasan du, eta horren ondorioz erabakiak hartu behar izan ditu erabiltzaileei eguneko 24 orduetan arreta sanitarioa ematea eragozten zuen egoerari aurre egiteko.

Asistentzia modu egokian egin ahal izateko, funtsezkotzat jo dute Iruñera bidaltzea osasunaren nahiz jarreraren aldetik konplexutasun handiena duten egoiliarak, eta zentroko plazen kopurua murriztea; proposamen hori nola Nafarroako Gobernuaren Osasun Departamentuak hala Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Departamentuak onartu dute.

Asistentzia berrantolatze aldera, kontuan hartu zen zentrotik aterako ziren erabiltzaileen eta haien familien eta tutoreen iritzia; konplexutasun handiko erabiltzaileak edota ingurune soziala Iruñean eta Iruñerrian zutenak izan ziren hautatuak, eta baliabide asistentzial espezializatu batean sartzea eskaini zitzaion.

Benito Menni zentroan funtzionamendu egokia bermatzeko, entitateak beharrezkotzat ikusi zuen asistentzia berrantolatzea konplexu asistentzialak dituen hiru eraikinetako bi erabiliz. Eraikinok zaharberritu egin ziren 2013tik 2018ra bitarte, eta baimeinei buruzko dekretuko betekizunak betetzen dituzte. Berrantolatze horretan birentzako 28 logelatik

30 izatera pasa dira, eta batentzako logelak % 73 izatetik % 67 izatera. Nahiz eta guragarria izan batentzako logelak mantentzea edota gehiago jartzeari, 38/2023 FDa 16.2 artikuluan haxe ezartzen du: Titulartasun eta kudeaketa publikoko egoitzetan, lehendik badaude edo 2023ko martxoaren 28a baino lehenagoko lizitazioa badute, % 10 izanen dira batentzako logelak landa eremuetan edo biztanle gutxiko eremuetan; % 20, dentsitate ertaineko herri edo eremuetan, eta % 25, dentsitate handiko hiri edo eremuetan. Beraz, bete egiten dute indarrean dagoen araudiak ezartzen duen beste hazteko alderdia.

Jakin badakigu azken lau urteotan zentroak funtzionamendua egokitu duela pertsonarengan zentratutako arretaren eredura, eta jarraitzen du eredua ezartzeko prozesuan.

Benito Mennirako egiten den ohe-murrizketarako proposamenak 16 kaleratze ekarriko lituzke —gehienez, emakumeak—. Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du horri buruz? Egin al da kaleratzeak eragozteko proposamen alternatiborik?

Plazak murriztearen ondorioz (esan dizudanez, arreta egokia emateko osasun langile beharrezkoak lortzeko zailtasunengatik), entitateak egokitzapenak egin behar izan ditu beste kategoria profesional batzuetan.

Zentroko zuzendariak adierazi digunaren arabera, urrian enpresak Enpresa Batzordeari jakinarazi zion aurreko okupaziotik 121 plazako okupaziora pasatzeak berekin ekarriko zuela gehienez ere 16 lanpostu egokitzea hainbat kategoria profesionalen artean, betiere helburutzat izanda Nafarroako Gobernuarekin indarreko itun sozialean ezarritako ratioak betetzea.

Gaur egun, eta asistentzia berrantolatzen amaitu ondoren, arrazoi horrengatik lau pertsona izan dira kaleratuak, eta baldintzen hiru aldaketa funtsezko egon dira; Enpresa Batzordeak horren berri izan du.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 19an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentari guztien eskura dago Agorako Kudeaketa Parlamentarioa atalean).

11-25/PES-00002. Galdera, eremu euskalduneko eta eremu mistoko afixa elebakarrei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak eremu euskalduneko eta eremu mistoko afixa elebakarrei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 17ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak 11-25/PES-00002 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, eremu euskalduneko eta eremu mistoko kartel elebakarrei buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Lurralde Kohesiorako Departamentuak bete egiten ditu Arartekoak nafar errepideetako kartelak elebidunak izatearen inguruan emandako gomendioak. Kartelen errotuluak ele bitan egiten dira, salbu eta akatsen bat izanez gero, eta akats hori jakin eta berehala zuzentzen da.

Arartekoak kartel elebidunen inguruan jarritako zenbait kexaren harira erantzun duenarekin bat,

“N-121-A errepidearen eremu mistoan (Iruña-Gipuzkoarekin muga) eta eremu euskalduneari jarritako informazio karteletan errotuluak ele bitan idatziko dira. Adierazi behar da beti aplikatu dela indarrean dagoen araudia; alabaina, kontuan hartuta trafiko seinaleak elementu garestiak direla eta kalitate estandar eta homologazio jakin batzuen arabera fabrikatzen direla, baliabideen ekonomia-aren, baliabideen erabilera jasangarriaren eta kutxa publikoa zaintzearen mesedetan, Zainketa Zerbitzuaren jarraibidea da trafikoko seinale edo kartel bat ordeztzea narriatu denean, betiere ez bada bandalismoaren ondorioz”. Bandalismoaren ondorioz ordeztu behar izanez gero, irizpide teknikoak ezartzen du seinalea dauden baldintza berberetan ordeztuko dela, bidea urratu dadila saihesteko.

Beraz, galderei erantzuteko, Herri Lanen Zuzendaritza Nagusiko Zainketa Zerbitzuak Arartekoaren gomendioei jarraitzen die, eta ez da egia aipatutako gomendioak jaso ondoren eremu mistoan edo eremu euskalduneari gaztelaniaz baino ez dauden kartelak jarri direnik berriro. Hala ere, akatsa egonez gero, horren berri izan bezain laster konpontzen da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 4an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00003. Galdera, talentua erakartze aldera Buenos Airesko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak talentua erakartze aldera Buenos Airesko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 17ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du talentua erakartzeko Buenos Airesko Unibertsitatearekiko hitzarmenari buruz (11-23/PES-00003). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Hitzarmena Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuak sustatu

zuen Nafarroako Gobernuak Argentinara bisita instituzionala egin ostean. Horren eta NUPEkin egindako lanaren ondorioz hitzarmenaren zirriborroa helarazi zitzaion Buenos Airesko Unibertsitateari (UBA).

Argentinan izan diren aldaketen ondorioz ez dugu erantzunik jaso; hori dela-eta, Nafarroako Gobernua harremanetan jarri da unibertsitatearekin zenbait aldiz.

Nafarroako Unibertsitate Publikoak, Nazioarteko Harremanetako Errektoreordetzaren bidez, hitzarmena egin eta behin-betiko sinatzeko lan egingiten ari da, erakunde akademikoen arteko ohiko jardunbidera egokituta, hau da, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Buenos Airesko Unibertsitatearen arteko aldebiko akordio bat garatu du.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 4an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00004. Galdera, Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian hidrogeno berdeko planta bat eraikitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian hidrogeno berdeko planta bat eraikitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 17ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian hidrogeno berdeko instalazio bat eraikitzeari buruz (11-23/PES-00004). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Bigarren lizitazioa adjudikatu gabe geratu zenean, Nafarroarako proiektu estrategikotzat jotzen denez, proiektuarekin aurrera egiteko araudiak ahalbidetzen dituen tresnak aztertzeari ekin zitzaion.

Ildo horretatik, aukerak baloratu ostean, erabaki zen prozesu negoziatu batekin jarraitzeko aukera aztertzea, eta, horretarako, elkarrizketak egon

ziren zenbait operadore ekonomikorekin, betiere ideia izanik proiektuarekin jarraitzea sortu zeneko baldintzei eutsiz.

Eragile ekonomikoekin elkarrizketak izan ostean, ondorioztatu zen, energia merkatuaren egoera kontuan hartuta, haientzako ez zela onuragarria entitate publiko-pribatu bat eratzea proiektua gauzatzeko.

Gobernu honek jarraitzen du Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hirian hidrogeno berdeko instalazio bat izatearen aldeko apustua egiten. Horretarako, dauden beste aukera batzuk ari gara aztertzen, eta, beraz, gaur egun, ezin dugu proiektuaren behinbetiko kostua definitu.

Aurrez adierazitakoagatik, ez dago aurreikusita akordiorik sinatzea bazkide pribatu batekin instalazioa eraikitzeko entitate publiko-pribatu bat eratzeko.

Galderan aipatzen duzun laguntzaren eskabidea Ciudad Agroalimentaria de Tudela SLU sozietateak egin zuen, onuraduna izanik hasierako proiektuaren arabera eratu behar zen entitate publiko-pribatua, eta IDAeri une oro eman zitzaion proiektuaren egoeraren berri.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 4an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00005. Galdera, Nafarroako osasun-garraioaren oinarrien kokapenari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako osasun-garraioaren oinarrien kokapenari buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 17ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, osasun garraioko Bidean enpresa publikoari buruz (11-25/PES-00005). Hona Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Non kokatuko dira Nafarroako osasun-garraioak behar dituen egoitzak edo baseak?

Nafarroako osasun garraioak behar dituen egoitzak gaur egun dauden toki berberetan mantenduko dira.

Ba al daude, egon, alokairuan nahiz erosita, kasuko nabeak edo lokalak?

Gaur egun hiru lokal daude alokatuta zerbitzua ematen hasi baino lehen egokitu behar direlako. Egokitzapenik behar ez duten gainerako egoitzetarako errentamendu-kontratua sinatuko da apirilaren 1ean, egoitzen gainerako errentamendu-kontratuak sinatzen direnean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 31n

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00006. Galdera, Europako NG SEM funtsei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Europako NG SEM funtsei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarriaren 17ko 3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du idatziz –2025eko urtarriaren 7ko 202500044 irteera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– NG-SEM Europako funtsei buruz (11-25/PES-00006). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean ez dago osagai, neurri edo jarduketarik I+G+b gaiaren inguruko informazioa edo zehetasuna jasotzen duenik. Argi dago SEEPren bidez kanalizatutako SEM funtsek intzidentzia dutela I+G+B alorrean (baita beste zenbaitetan ere), baina ez dago horrelako neurketa nahiz adierazlerik. Hori dela-eta, ezin zaio galdera parlamentarioari eran-

tzun ildo horretatik, informazio hori ad hoc egitea ekarriko bailuke.

Aurrekoaren ondorioz, eta Parlamentuaren Erregelamenduko 14.1 artikulua ezartzen duena betez, adierazi behar da galdera parlamentarioak informazioa eskatzen duela jorratu ez diren datuei buruz, eta Nafarroako Gobernu honek ez du horien inguruko txostenik edo dokumenturik egin. Eta informazio eskaerak zehazten ez duenez Nafarroako Gobernuaren zer txosten edo lan dokumentutan jasotzen den eskatzen duen I+G+b alorraren inguruko informazioa, eskatutako informazioaren neurketa espezifiko bat ere ez dagoenez, benetan gertatzen dena da galdera parlamentario honetarako ad hoc egindako txostena edo dokumentazioa ari dela eskatzen.

Hala ere, jakinarazten da Nafarroako Gobernuak kudeatzen dituen 150 azpiproiektuei buruzko informazio guztia hileroko eguneratzen dela SEM funtsen egoeraren arabera, eta informazio publikoa da, Nafarroako Gobernuaren Gardentasun Atariaren bitartez eskuratzen ahal dena.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez eta bidalitako informazioa konfidentziala dela adieraziz

Iruñean, 2025eko otsailaren 4an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00007. Galdera, oinarritzko osasun-laguntzako egiturazko erizain-lanpostuak kentzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak oinarritzko osasun-laguntzako egiturazko erizain-lanpostuak kentzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: "COVID-19aren ondoren sortu ziren oinarritzko osasun-laguntzako erizainen egiturazko 44 lanpostuetatik zenbat kendu dira Nafarroako osasun-etxeetan? Zeintzuk izan dira horretarako arrazoiak eta zer irizpide baliatu da osasun-etxe bakoitzean zer lanpostu kendu erabakitzeke?" (11-25/PES-00007). Hona Nafarroako Gobernuaren Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

COVIDaren ondoren 44 erizaintza plaza sortu ziren OOL erronkarako 2023. urtean.

Horietatik lau baino ez ziren kendu beste batzuk sortzeko. Honako hau da laburpena:

ANTOLAKETA UNIT.	PLAZA	OHARRAK
OOL: ERIZ. UNIT. ERMITAGAÑAKO OOLT	544384	Kendu zen beste plaza bat sortzeko ERRELEBO-KONTRATU bidez
OOL: ERIZ. UNIT. AZPILAGAÑAKO OOLT	544397	Kendu zen Osasun Mentaletik zetorren plaza huts bategatik ordezteko (60981)
OOL: ERIZ. UNIT. BURLATAKO OOLT	544398	Kendu zen Mendillorri bestea bat sortzeko, han beharrezkoagoa baitzen
OOL: ERIZ. UNIT. TXANTREAKO OOLT	544382	Plaza hau ez zen luzatu jarduera berrantolatu zelako

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 7an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00008. Galdera, Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnosirako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoa kontratatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnosirako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoa kontratatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera (11-25/PES-0008) egin du –Nafarroako Parlamentuan 202500410 zenbakiarekin erregistratu da, 2025eko urtarrilaren 21aan–, jakiteko zertan den Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnostikorako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoaren kontrata-

zioa. Hona Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Galdera horren harira, INIk galderaren testuan agertzen diren gaiei erantzuteko emandako informazioa helarazten da.

Une honetan kasuko baldintza arautzaileen agiriak egiten ari dira Nafarroaren hazkunde ekonomikoa bultzatzera bideratutako diagnostikorako, ekintza-planerako eta ebaluazioaren jarraipenerako laguntza teknikoaren kontratazioa egiteko.

Laster argitaratuko da lizitazioa Nafarroako Kontrataziorako Atarian, eta horretarako aurreikusi-ta dago Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legearen 74. artikuluan jasotako prozedura negoziatua erabiliko dela.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez eta bidalitako informazioa konfidentziala dela adieraziz

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00009. Galdera, enpresek Nafarroan sortzen dituzten enpleguei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak enpresek Nafarroan sortzen dituzten enpleguei buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

PEEskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak 11-25/PES-00009 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen galdera hori:

- Nafarroan enpresek zenbat enplegu sortzen dituzte Orokorra, Enpresa txiki eta ertainak eta Mikroenpresak gisa bereizitako parametro bakoitzean?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Departamentu honek ez du eskatutako parametroen araberrako daturik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariaren erantzuna

Parlamentuko Mahaiaren otsailaren 17ko Erabaki bidez honako hau ERABAKI ZEN:

Jotzea ez dela koherentea Nafarroako Gobernuak Nafarroan enpresek sortzen dituzten enpleguei buruzko galderari emandako erantzuna (11-25/PES-00009).

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak honako hau jaso zuen bere galderan:

Enpresen fiskalitateari buruzko galdera idatzibati erantzutean, Nafarroako Gobernuak honako taula hau igorri dit:

Nafarroako Zerga Ogasuna

		TG
General	>20 M vol. Operaciones	28%
Pymes	>1 M-<20 M vol. operaciones	23%
Micropymes	-<1 M vol. Operaciones	19%

Nafarroan enpresek zenbat enplegu sortzen dituzte Orokorra, Enpresa txiki eta ertainak eta Mikroenpresak gisa bereizitako parametro bakoitzean?

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215.5 artikuluan xedatutakoa betez, adierazi

behar da Nafarroako Gobernuak ez daukala parlamentari zaren aldetik enpresa kategoriaren arabera eskatu duzun informazio zehatza.

Hala ere, erabilgarria izaten ahal delakoan, Nastat - Nafarroako Estatistikaren Institutuari datua hauek bidaltzen dizkizugu.

Personas asalariadas	Nº de empresas	% sobre el total	Tasa interanual (%)	% personas asalariadas sobre el total
Ninguna	21809	56,4	-0,1	0
De 1 a 2	9361	24,2	-3,6	7,3
De 3 a 5	3239	8,4	0,1	7,6
De 6 a 9	1627	4,2	3,6	7,3
De 10 a 19	1312	3,4	0,3	11
De 20 a 49	861	2,2	2,6	16,4
De 50 a 99	226	0,5	-0,4	9,7
De 100 a 249	176	0,5	8,6	16,2
Más de 249	65	0,2	-1,5	24,5
TOTAL	38676	100	-0,7	100

Personas asalariadas	Total personas asalariadas (2024)	Total personas asalariadas (2023)
Ninguna		
De 1 a 2	13470	12130
De 3 a 5	15722	12922
De 6 a 9	11401	11883
De 10 a 19	14621	17426
De 20 a 49	25856	26502
De 50 a 99	20867	20683
De 100 a 249	28102	27840
Más de 249	83954	83394
TOTAL	300891	296891

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 21ean

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariaren erantzuna

Beste erantzun bat ematen da otsailaren 21eko 11-25/PES-00009 galderaren erantzunerako indexatutako tailetako batean izandako akats bat zuzentzeko.

Halaber, adierazten da Nafarroako Gobernuak ez daukala parlamentari zaren aldetik enpresa kategoriaren arabera eskatu duzun informazio zehatza.

Hala ere, erabilgarria izaten ahal delakoan, Nastat - Nafarroako Estatistikaren Institutuaren datua hauek bidaltzen dizkizugu.

Personas asalariadas	Nº de empresas	% sobre el total	Tasa interanual (%)	% personas asalariadas sobre el total
Ninguna	21809	56,4	-0,1	0
De 1 a 2	9361	24,2	-3,6	7,3
De 3 a 5	3239	8,4	0,1	7,6
De 6 a 9	1627	4,2	3,6	7,3
De 10 a 19	1312	3,4	0,3	11
De 20 a 49	861	2,2	2,6	16,4
De 50 a 99	226	0,5	-0,4	9,7
De 100 a 249	176	0,5	8,6	16,2
Más de 249	65	0,2	-1,5	24,5
TOTAL	38676	100	-0,7	100

Iturria: https://nastat.navarra.es/documents/5122306/18425210/dena_nastat.pdf/31d62ac7-6060-0887-9561-a99324fe2511?t=1722415702288

Personas asalariadas	A 1 de enero de 2024	A 1 de enero de 2019
De 1 a 2	11719	12325
De 3 a 5	12172	12288
De 6 a 9	11700	11163
De 10 a 19	17691	17268
De 20 a 49	26344	24171
De 50 a 99	15852	16253
De 100 a 249	26079	23203
Más de 249	39424	35442
TOTAL	160981	152213

Fuente: Elaboración propia con datos del NASTAT

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 5ean

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00010. Galdera, jakiteko ea energia-kalifikazioaren ziurtagiria eduki beharra betetzen ote den

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea energia-kalifikazioaren ziurtagiria eduki beharra betetzen ote den, 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin

du energia-kalifikazioaren ziurtagiria izateko betebeharraren betetze mailari buruz (11-25/PES-00010). Hona Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Parlamentariak eskatutako informazioa kontsultatzen ahal du honako esteka honen bidez: <https://datosabiertos.navarra.es/eu/dataset/certificaciones-energ-ticas>

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00011. Galdera, jakiteko ea zer neurri hartu diren Nafarroako etxebizitza kolektiboko eraikinek 2030eko urtarrilaren 1etik aitzina B mailako edo goragoko energia-kalifikazioa izan dezaten

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko ea zer neurri hartu diren Nafarroako etxebizitza kolektiboko eraikinek 2030eko urtarrilaren 1etik aitzina B mailako edo goragoko energia-kalifikazioa izan dezaten, 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00011 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen horren bidez eskatzen duena: Nafarroako Gobernuak zer

bitarteko ezarriko du 2030eko urtarrilaren 1etik aurrera Nafarroako bizitegi kolektiboko eraikinek B mailako edo goragoko kalifikazio energetikoa izan dezaten?

Hona hemen Nafarroako Gobernuako Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Adierazi behar da ezen, eraikin baten fatxada zaharberritzea, haren inguratzaile termikoa hobetzeko, kasu gehienetan ez duela aukera ematen energia-kalifikazioan B letrara per se iristeko; hala ere, nabarmenki laguntzen du hori lortzen, eta, horrenbestez, ildo horretatik, hauxe adierazi behar da:

2023an, inguratzaile termikoa hobetzeko birgaitze babestuko 112 espedienteri eman zitzaizen behin-behineko kalifikazioa, guztira 1.724 etxebizitzari, eta 11.741.959,66 euro eman ziren dirulaguntzetan.

2024an, inguratzaile termikoa hobetzeko birgaitze babestuko 182 espedienteri eman zitzaien behin-behineko kalifikazioa, guztira 3.447 etxebizitzari, eta 22.870.504,35 euro eman ziren dirulaguntzetan.

Aurreko espedienteak Nafarroako Gobernuaren funts propioekin finantzatu ziren, galarazi gabe Europako SEM funtsei lotutako dirulaguntzen onuradun izatea ere bai.

Halaber, nahiz eta etxebizitza kolektiboko erai-kin baten instalazio termiko zentralizatuak hobetzeak ez duen bermatzen energia-kalifikazioan B letrara per se iristea, nabarmenki laguntzen du hori lortzen; horrenbestez, ildo horretatik, hauxe adierazi behar da:

2023an, instalazio termiko zentralizatuak hobetzeko birgaitze babestuko 19 espedienteri eman zitzaien behin-behineko kalifikazioa, guztira 1.574 etxebizitzari, eta 2.158.448,39 euro eman ziren dirulaguntzetan.

2024an, instalazio termiko zentralizatuak hobetzeko birgaitze babestuko 36 espedienteri eman zitzaien behin-behineko kalifikazioa, guztira 2.126 etxebizitzari, eta 3.572.009,38 euro eman ziren dirulaguntzetan.

Bat etorritz Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 40.3 artikuluan xedatzen denarekin, Nafarroako Gobernuak jarraituko du 2030. urterako ezarritako helburuak betetzeko neurri posibleak aztertzen.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politike-tako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00012. Galdera, klima-aldaketan eta trantsizio energetikoan genero-ikuspegia betetzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak klima-aldaketan eta trantsizio energetikoan genero-ikuspegia betetzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-24/PES-00012 galdera idatzia egin du, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak zer jarduketa egin duen klima aldaketan eta trantsizio energetikoan genero-ikuspegia betetzeko. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

2025eko urtarrilaren 15ean, Nafarroako Gorte-etako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikita dagoen Cristina López Mañero andreak honako galdera idatzi hau egiten dio Nafarroako Gobernuari:

Zer ari da egiten Nafarroako Gobernuak klima-aldaketan eta trantsizio energetikoan genero-ikuspegia bete dadin?

Horri dagokionez, honako hau jakinarazten da:

Genero politikek zeharkako izaera nabarmena dute; horrenbestez, nahiz eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak definitu, ezartzeko orduan Nafarroako Gobernuaren departamentu eta organismo guztiek parte har dezatela behar da.

Klima aldaketaren eta trantsizio Energetikoaren alorrean, 4/2022 Foru Legeak, martxoaren 22koak, Klima Aldaketari eta Energia Trantsizioari buruzkoak genero-ikuspegia eta genero politikak kontuan hartzen ditu, gai horren inguruko artikulua espezifikoki batean:

4. artikulua. Genero-ikuspegia klima-aldaketan eta energia-trantsizioan.

1. Nafarroako administrazio publikoek bermatuko dute emakumeek erabaki-hartze, planifikatze eta aplikazio-prozesuetan parte hartzen dutela, eta genero-ikuspegia txertatzen dela klima-aldaketaren aurka borrokatzeko politiketan eta horrekiko zerikusia duen garapenerako lankidetzakoetan.

2. Pizgarriak emanen dira emakumeek ekarpen intelektual eta aktiboa egin dezaten klima-politiken taxuketan, horiek zuzeneko eragina dutenez gero genero-berdintasunean eta ahalduntzean, eta kontuan izanik klima-aldaketa samurtzeko soluzioetan betetzen duten zeregin behinena.

3. Horregatik, Nafarroako administrazio publikoek genero-ikuspegia txertatuko dute ingurumen-politiken taxuketan, egikaritzean, segimenduan, ebalazioan eta horiei buruzko txostenetan. Gainera, bermatuko dute emakumeek erabateko eta ekitatezko parte-hartzea daukatela erabaki-hartzearen maila guztietan; batez ere, klima-aldaketari dagokionez.

4. Bereziki sustatuko dira landa-eremuetako emakumeen zaurgarritasunaren aurkako jarduketak, azpimarra jarriko generoen arabera ezberdindutako inbertsioak nekazaritza jasangarriarentzat dituen arriskueta eta bultzada emanez emakumeek jabe izateko eta lurra erabiltzeko dituzten eskubideei.

5. Guraso bakarreko familiek pairatzen dituzten energia-pobrezia egoerei lehenespenezko erantzuna emanen zaie, deitzen diren laguntza-planetan lehenetsunak ezarri.

6. Genero-ikuspegia kontuan hartzen duten politikak taxutuko dira, bermatze aldera emakumeak energia-teknologia garbietako ekintzaile gisa eta ezagutza-iturri gisa aintzat hartuak izan ahal izatea; eta, horretarako, berritzailetasuna, enpresaritasuna eta ikerketa sustatuko dituzten jarduerak egingen dira.

Artikulu horretan jasotakoa abiapuntu, genero-ikuspegia klima-aldaketan eta trantsizio energetikoan txertatzeko zenbait ekimen eta neurri aipatu behar dira:

- 2022. urtean klima-aldaketaren alorreko genero-ikuspegiaren inguruko azterlan bat egin zen Nafarroan, eta Nafarroako klimaren testuingurua aztertu zen genero-ikuspegitik, ezagutze aldera zein den egungo egoera, eta azaleratze aldera klima-ekintza genero-ikuspegia duen ikuspuntu batetik lantzeko beharra, alde batera utzi gabe

intersektionalitatea. Ondorio nagusia da klima-aldaketa ez dela neutroa genero-arekiko, eta, beraz, plan, estrategia, araudi eta ekintza oro –izan toki-koa, estatukoa edo nazioartekoa– ikuspegi horretatik jorratu behar da.

- 2024. urtean zehar ingurumen zerbitzuetan espezializatutako kontsulta-enpresa bat kontratatatu da, eta honako zeregin hauek gauzatu ditu:

- Nafarroan emakumeen eta klima-aldaketaren inguruan egin diren ekintzak eta proiektuak biltzea. Informazio hori eskatzea NABlri, Nasuvinsari, Teachers for future erakundeari, Eskola Jasangarriari, tokiko ekintza taldeei...

- COMFINekin koordinatzea (Nafarroako berdintasunaren aldeko emakume erakundearen eta/edo erakunde feministen koordinatzailea) generoaren eta klima-aldaketaren inguruko parte-hartze tailer batzuk egiteko toki eta eragile funtsezkoak aukeratzeko.

- Tailerrak diseinatzea eta egitea helburuko hiru publikoentzako: ikasleak, emakume gazteak eta emakume helduagoak.

- Emakumeak, klima-aldaketa eta biodibertsitatea. Ikasleentzako bi tailer Irunberriko San Juan HLHIPan eta Zumadi eskolan, Abartzuzan.

- Emakumeak, klima-aldaketa eta kontsumoa, Irunberrin eta Deierri.

- Emakumeak, klima-aldaketa eta osasuna, Irunberrin eta Iurren.

- Txostena, klima-aldaketa eta genero-ikuspegia lantzeko gomendioekin eta jardunbide egokiekin.

- Eratzeko prozesuan dago Klima-aldaketaren eta Trantsizio Energetikoaren arloko politikarako Gizarte Kontseilua, Klima-aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera, Bertan, parekidetasuna bermatuko da.

- Halaber, hautaketa fasean da foru lege horren 15. artikuluan jasotako eta Landa Garapenerako eta Ingurumeneko kontseilariaren maiatzaren 7ko 142E/2024 Foru Agindu bidez araututako Klima-aldaketaren Nafar Herriar-batzarra. Berori osatuko dute 30 kideak hautatzean irizpidetzat hartu behar da 15 emakume eta 15 gizon egotea. Horrez gain, batzar horri esleitutako zeregina da gure eskura dauden soluzioak proposatzea berotegi efektuko gasen emisio txikiagoak dituen Nafarroa bat eraikitze, klima-aldaketaren eraginekiko eta arriskuekiko zaurgarritasun gutxiago duena, eta soluzio horiek elkartasuna, ekitatea, justizia soziala

eta trantsizio ekologiko bidezkoa har ditzatela kontuan. Beraz, proposamen horietan genero ikuspegi hartu behar da aintzat.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 7an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00013. Galdera, errepideak zeharkatzen dituzten faunarendako pasabideetarako neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak errepideak zeharkatzen dituzten faunarendako pasabideetarako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du errepideak gurutzatzen dituzten fauna pasabideetako neurriei buruz (11-25/PES-00013). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako Departamentuko Herri-lanen eta Azpiegituren Zuzendaritza Nagusiaren Zainketa Zerbitzuaren bidez, gaur egun enpresa espezializatu bat du kontratatuta 2024-2028 aldirako Nafarroako errepide sarean bide-segurtasuneko azterlanak idazteko kontratuaren alorrean.

Kontratu horretan jaso egiten dira Nafarroako Gobernuaren errepide sarearen barneko urteko istripu datuak, eta azken lau urteetako datuekin batera aztertzen dira, istripuei buruzko urteko txosten bat lortzeko.

Era berean, txosten hori behin eta berriro egiten da kontratuaren bost urteetako bakoitzean. Lortutako informazioaren eta horren azterketaren bidez, istripuetako joerak identifikatzen dira, politika orokorrak zehazten laguntzen ahal dutenak sarean egin beharreko jarduketetan, baita zeintzuk lehenetsi behar diren ere.

Trafikoko istripuen tipologia zabalaren barnean, animaliak harrapatzearen ondoriozko istripuak nabarmentzen dira, eta, are zehatzago, ehiza faunatzat hartzen denari lotutakoak. Horren ondorioz, aipatutako kontratuaren barnean ere bai, bi urtean behin ehiza fauna harrapatzearen ondoriozko istripuen txosten bat egiten da.

Azken bost urteetan izandako istripuak ere jorratzen ditu txostenak, aldi hori erabili ohi baita bide-segurtasuneko azterlanetan.

Azterlan eta txosten horien helburu nagusia aztertutako aldian izandako istripuen deskribapen xehatua ematea da, bai eta horien kokapena, kontzentrazioa eta bilakaera aztertzea ere, halako moldez non informazioa egituratuta geratzen den istripu kopurua murriztu dadila sustatzen duten jarduketa programak idazten laguntzeko ondorioak atera ahal izateko.

Txosten bakoitzean ateratako ondorioen artean, "ehiza fauna harrapatzearen ondoriozko istripu tarte" (TAF) deritzenak identifikatzea eta kalkulatzeko nabarmendu behar dira; bat datoz, izandako istripuen eta horien analisiaren arabera, ehiza animaliak harrapatzeko arrisku handia duten errepide zatiekin. Behin tarte horiek identifikatu ondoren, errepideok seinaleztatzen dira behar diren trafikoko seinaleekin, kasu honetan

araudiko P-24 seinalearekin (animalia askeak igarotzearen ondoriozko arriskua), eta, kasu bada, S-810 seinalea ere jartzen da (seinalearen mende dagoen tartearen luzera adierazten du).

Egin beharreko jarduketa nagusia, behin urte jakin bateko ehiza fauna harrapatzearen ondoriozko istripuen txostenaren berri izan ostean, identifikatutako TAF berrien seinaleak errepideetan jartzeari; horretarako, seinale berriak jartzen ahal dira, edo dauden kokapena aldatu.

2023an ehiza faunaren ondoriozko istripuen inguruko lantalde bat ezarri zen, Foruzaingoko, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Basoen eta Ehizaren Zerbitzuko eta Lurralde Kohesiorako Departamentuko Zainketa Zerbitzuko kideek osatua.

Urtean bitan bilerak egiten dituzte diziplina antzeko ikuspuntu batetik azaltzeko eta aztertzeko istripuen errealitatea eta alde guztien egiten ahal dituzten jarduketa posibleak. Egin diren ekintzen artean nabarmentzekoa da 2023ko udazkenean lau errepide zatitan egindako seinaleztapen berezia; zati horiek hautatu zituzten animalien ondoriozko ezbehar kopuru handia zutelako, eta kartel bereziak jarri ziren gidariei zatiaren arriskuaren berri emateko. Zati horietako bietan balizamendu berezia jarri zen ere bai, ibilgailuak pasatzen direnean faunari errepidea gurutzatzeko asmoa kentzeko diseinaturik.

Horrez gainera, polizia kontrolak egin dira eremu horietan gidariei ohartarazteko eta zation inguruabarren berri emateko, eta aipatutako eremuetan basurdeen eta orkatzen populazioak aztertu dira.

Honako zona hauetan egin ziren jarduketak:

– 1. zona, NA-134 errepidea “EBROKO ARDATZA” 9+000 eta 14+000 kilometroen artean. 3. mailako islapeneko kartel fluoreszenteak jarri ziren, goiko aldean LED argiak dituztenak, ibilgailuei ohartarazteko animaliak egoten ahal direla bi noranzkoetan, bai eta arrisku-seinale triangeluarrak ere, batzuk arrisku-seinalearen jarduketa-distantziarekiko plaka osagarriekin, bide zatian zehar.

Halaber, disuasio mugarriak jarri ziren galtzadaren alboetan, ibilgailuen argia proiektatzen dutena une horretan igaro nahi duten animalien gana.

– 2. zona, N-121 errepidea “IRUÑA – TUTEIRA” 20+000 eta 24+000 kilometroen artean. 3.

mailako islapeneko kartel fluoreszenteak jarri ziren, goiko aldean LED argiak dituztenak, ibilgailuei ohartarazteko animaliak egoten ahal direla bi noranzkoetan, bai eta arrisku-seinale triangeluarrak ere, batzuk arrisku-seinalearen jarduketa-distantziarekiko plaka osagarriekin, bide zatian zehar.

– 3. zona, N-240-A errepidea “IRUÑA – GASTEIZ” 13+000 eta 16+730 kilometroen artean. 3. mailako islapeneko kartel fluoreszenteak jarri ziren, goiko aldean LED argiak dituztenak, ibilgailuei ohartarazteko animaliak egoten ahal direla bi noranzkoetan, bai eta arrisku-seinale triangeluarrak ere, batzuk arrisku-seinalearen jarduketa-distantziarekiko plaka osagarriekin, bide zatian zehar.

Halaber, disuasio mugarriak jarri ziren galtzadaren alboetan, ibilgailuen argia proiektatzen dutena une horretan igaro nahi duten animalien gana.

– 4. zona, NA-132-A errepidea “LIZARRA – GASTEIZ” 4+000 eta 9+000 kilometroen artean (zati horretan eragiten zion “IGUZKITZAKO saihebidia” NA-132-B errepideko gurutzaguneari). 3. mailako islapeneko kartel fluoreszenteak jarri ziren, goiko aldean LED argiak dituztenak, ibilgailuei ohartarazteko animaliak egoten ahal direla bi noranzkoetan, eta NA-134-B errepidearen hasieran ere bai, bai eta arrisku-seinale triangeluarrak ere, batzuk arrisku-seinalearen jarduketa-distantziarekiko plaka osagarriekin, bide zatian eta NA-134-B errepidean zehar.

Nafarroako Foru Komunitateko errepide guztietan kokatuta P-24 seinaleen (“Animalia askeen igarobidea. Arriskua animalia askeek bidea gurutzatu ohi duten toki batetik gertu egoteagatik”) inguruko informazioa publikoa da, eta honako webgune honetan kontsultatzen ahal da: <https://obraspublicas.navarra.es/eu/>; 2018ko abenduaren 12ko dokumentua da eta aldzika eguneratzen da.

Herritarrei informazioa ematen aldera, informazio geografikoaren orri bat egin eta argitaratu da Nafarroako Gobernuaren IDENA atarian, eguneratutako P-24 seinaleei buruzko informazioa jasotzen duena.

Hemen eskuratzen ahal da:

- Deskargatzeko eta berrerabiltzeko: https://datosabiertos.navarra.es/eu/dataset/spasit-nainfrae_sym_senalfauna-xml

- Kontsulta publikorako:

<https://idena.navarra.es/navegar/#ZXh0fGJhc2V8bWFwYWJhc2V8bGF5ZXJzfHV8Ly9pZGVuYS5uYXZhcjJhLmVzL29nYy93bXN8bnxzZW5hbENpbmVnZXRpY2F8b3x2fGh8dXJ8Znx0fEIERU5BfGI8bGNhdC0xLTF8eMV42MDQ5ODAuMTU1fDQ3MjUwODAuNDN8NjM1NTcyLjE1NXw0NzQwNjY0LjQzXiQwfEBJfEp8S3xMXxwxfDJ8M3xAJDR8NXw2fDd8OHxIfDI8LTF8QXwtMXxCfC01fEN8LTV8RHxFeEZ8R11dXQ==>

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00014. Galdera, Nasuvinsak Tafallako Manero Enearen orubean etxebizitzak egiteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nasuvinsak Tafallako Manero Enearen orubean etxebizitzak egiteari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak 11-25/PES-00014 galdera egin du. Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Concepción eta Santa María kaleetan kokatutako partzeletatik, Nasuvinsa 280. zenbakikoaren jabe da soilik. Concepción kaleko 2. zenbakian dago kokatuta, hain zuzen, eta sozietate publikoak erosi zuen 2013an.

Gainerako partzeletatik, hiru Nafarroako Gobernuarenak dira (274, 275 eta 283) eta beste bi partzelak Building Center (901) eta Coral Homes SLU

(276) sozietateen izenean agertzen dira. Azken kasu horretan, beste jabe batzuekin dago partekatuta.

2022an Nasuvinsak azterlan tekniko bat egin zuen aipatutako partzelen prezio zenbatetsiaren inguruan, balizko erosketa egin eta bederatzi etxebizitzako sustapen bat gauzatzeko.

Bideragarritasun ekonomikoko irizpideei jarraikiz, une horretan erabaki zen Tafallako erdigune historikoan bizitegi sustapeneko proiektu horrekin ez jarraitzea.

Manero Enearen inguruari buruzko aipatutako azterlanak ez du inolako harremanik edo baldintzatzailearik Navarra Social Housing alokairu babestuaren foru planaren bigarren fasean hasiera batean aurreikusitako Tafallako 34 babes ofizialeko etxebizitzako sustapenarekin.

Ez dago jasota Nasuvinsak Tafallako alde zaharreko jabeen orubeak edo etxebizitzak eros-teko eskaintza jaso duenik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n.

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00015. Galdera, AHTaren Nafarroako trazadura zehazteko egin beharreko laginetan izandako sabotajeen ikerketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Marta Álvarez Alonso andreak AHTaren Nafarroako trazadura zehazteko egin beharreko laginetan izandako sabotajeen ikerketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 14an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, idatziz erantzuteko galdera egin du (11-25/PES-00015). Hona Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak horren harira ematen dion informazioa:

Gobernuaren Nafarroako ordezkari Echeverría andreak gaur prentsaurreko batean adierazi du Guardia Zibilean ez dagoela jasota inolako salaketa "ofizialik" AHTaren Nafarroako trazadura erabakitze beharrezkoak diren laginetako sabotajeak direla-eta. Adierazpen horiek bat datoz arrazoi beragatik Foruzaingoan jarritako salaketak direla-eta Alderdi Sozialistako kideek egindako adierazpenekin.

Halere, Gobernuaren Nafarroako ordezkariak honako hau adierazi zuen prentsaurreko horretan berean: "alderdi batzuetan bai egin ahal izan dira laginak, eta orain arte laginik egin ezin izan den alderdietan egin beharreko zuzemenak egiten dira ministerioak konpromisoa bete ahal izan dezan, hau da, lanak egin ahal izan ditzan erabakia hartzeko irizpide tekniko bat edukitzeko". Adie-

razpen horietatik argi eta garbi ondorioztatzen da kanpo-eragozpenen bat egon dela laginak alderdiaren batean egiteko.

Sabotaje-ekintzak gertatu direla iradokitzen duten albisteak ikusita, Nafarroako Gobernuak abiarazi al du edo abiarazi nahi al du ofizioz inolako ikerketarik ekintza horiek direla-eta, jakin ahal izan dadin non eta noiz gertatu diren eta ustez nork egin dituen?

Foruzaingoak lanez arduratzen den enpresari jakinarazi dio prest dagoela segurtasunaren inguruan izaten ahal duen edozein eskaera artatzeko, eta interesa agertu du informazioa eskuratzeko zundaketen kronogramaren inguruan, behar izanez gero egutegi prebentibo bat egite aldera. Momentuz ez da ofiziozko ikerketarik hasi ekimen parlamentarioan adierazitako esparruaren inguruan.

Foru Kidegoaren lan prebentiboko ildo horretan, joan den hilean, zundaketei buruzko protestak egin dituen mugimenduaren komunikatu baten ondorioz –herritarrei eskatu zien mobilizatzeko, urtarrilaren 20an egiten zirenak geldiarazteko–, Foruzaingoa berriro jarri zen harremanetan enpresarekin, horri buruzko informazioa biltzeko eta, inguruabar horiek ikusita, tokian polizia egonen zela jakinarazteko. Horretarako, urtarrilaren 20an, astelehena, Altsasuko Herritarren Segurtasuneko patruilek, Esku Hartzeko Dibisioko patruilek eta Informazio Dibisioko patruilek osatutako segurtasun dispositibo bat programatu zen, eta inguru horretan egon zen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 14an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-25/PES-00016. Galdera, Prodigioso Volcán enpresak egindako ekintza estrategikoen emaitzen eta inpaktuaren ebaluazioa bidaltzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Prodigioso Volcán enpresak egindako ekintza estrategikoen emaitzen eta inpaktuaren ebaluazioa bidaltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00016); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Prodigioso Volcán enpresak noiz bidali zuen egindako ekintza estrategikoen emaitzen eta inpaktuaren ebaluazioa, dagozkien material entregagarriekin?

Prodigioso Volcán kontsulta-enpresa da Nafarroa Marka proiektua sustatzeko estrategia garatzeko eta egiteko arduraduna. Jakin badakizunez, proiektuak zenbait fase ditu.

Prodigioso Volcán enpresak Nafarroa Marka sustatzeko planean jasotako ekintza estrategikoen eragina neurtzeko eta emaitzak ebaluatzeko laugarren fase horretako lan guztiak fakturatu zituen; horren txostenaren lehenbiziko bertsioa 2024ko azaroaren 29an aurkeztu zen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00017. Galdera, Prodigioso Volcán enpresak Nafarroa marka sustatzeko bere planean jasotako ekintza estrategikoen proposamenak bete izanaren akreditazioa bidaltzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Prodigioso Volcán enpresak Nafarroa marka sustatzeko bere planean jasotako ekintza estrategikoen proposamenak bete izanaren akreditazioa bidaltzeari buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00017); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Prodigioso Volcán enpresak zer egunetan bidali zuen Nafarroa marka sustatzeko bere planean jasotako ekintza estrategikoen proposamenak bete izanaren akreditazioa?

Prodigioso Volcán kontsulta-enpresa da Nafarroa Marka proiektua sustatzeko estrategia garatzeko eta egiteko arduraduna. Jakin badakizunez, proiektuak zenbait fase ditu, eta hirugarrena Nafarroa Marka sustatzeko planean jasotako ekintza estrategikoak egitearena da.

2024ko urriaren 21ean, Prodigioso Volcán enpresak hirugarren faseko lan guztiak fakturatu zituen; lanak urriaren 15ean amaitu ziren.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 23an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00018. Galdera, “Coyuntura Ambiental de Navarra” aldizkariak argitaratzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Félix Zapatero Soria jaunak “Coyuntura Ambiental de Navarra” aldizkariak argitaratzeari buruz egin-dako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Félix Zapatero Soria jaunak 11-25/PES-00018 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: “Nafarroako Gobernuaren Medio Ambiente. Observatorio Ambiental de Navarra-navarra.es webgunean Nafarroako ingurumen-koiunturari buruz argitaratuta dagoen azken buletina zergatik da 2023ko apiriletik ekainera bitarteko hiru hilekoa? ”. Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

2017. urtetik Nafarroako ingurumen koiunturari buruzko buletina argitaratu da, adierazleak jasotzen dituen Nafarroako Foru Komunitatearen egoerari buruz eta hiruhilekoko datuak biltzen dituen ongariaren kontsumoaren, emisioen, biodibertsitatearen, klimatologiaren, uraren eta airearen kalitatearen inguruan, besteak beste.

Buletinak xedetzat du intereseko ingurumen informazioa aurkeztea publikoari, modu bisualean eta dibulgaziozkoan, nola etorkizuneko azterlanetarako erabiltzeko hala ingurumenaren askotariko alderdien inguruan informatuta egoteko.

Landa eta Ingurumen Estatistikaren eta Informazioaren Atala gaur egun lan egiten ari da Nafarroako Ingurumenaren Behatokiaren webgune berri bat martxan jartzeko, eta, horren ondorioz, Atal horren baliabideak webgune horretara bideratu dira, eta ezin izan dira Nafarroako ingurumen koiunturari buruzko hiruhilekoko txostenak argitaratu 2023ko azken hiruhilekorako eta 2024rako.

Edozelan ere, hiruhilekoko buletina egiteko balio duten Nafarroako koiunturaren adierazleak

eta datuak Nafarroako Gobernuaren beste webgune batzuetatik ateratzen ahal dira:

1. Airea:

<https://www.navarra.es/es/calidaddelaire/estaciones/datos-e-informes>

<https://www.navarra.es/documents/48192/37361841/Informe+calidad+aire+Navarra+2023.pdf/57a9f7b9-ae05-9417-dfcb-2f8809635a51?t=1720090997728>

<https://datosabiertos.navarra.es/eu/dataset/calidad-del-aire-en-navarra>

2. Ura:

https://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Agua/Documentacion/Memorias/

<https://administracionelectronica.navarra.es/aguaEnNavarra/ctaMapa.aspx?IDOrigenDatos=1&IDMapa=1>

<https://nastat.navarra.es/eu/operacion-estadistica/-/tag/suministro-saneamiento-agua>

<https://datosabiertos.navarra.es/eu/dataset/sistema-autom-tico-de-informacion-hidrol-gica-saih->

<https://datosabiertos.navarra.es/eu/dataset/zonas-de-ba-o-naturales-de-navarra>

3. Klimatologia:

<https://meteo.eu.navarra.es/>

<https://nastat.navarra.es/eu/operacion-estadistica/-/tag/meteorologia>

4. Biodibertsitatea eta natura ondarea:

<https://app.powerbi.com/view?r=eyJrljoiNTliZjc5ZjgtZjE0My00OTY4LWI5NTUtYThjODcyOWlyNGQxliwidCI6ImU1MzUyM2I4LWQ5NDYtNDQxMi00OTFjLWMxOTk3ZWMyMzU1NyIsImMiOiJ9>

https://datosabiertos.navarra.es/eu/dataset/spasitnaforest_pol_hcoincendioa-xml

<https://www.navarra.es/eu/ingurumena/basogintzari-buruzko-ikerlanak-eta-txostenak>

<https://www.navarra.es/documents/30155142/31260669/comercio.pdf/af973188-96c5-0de5-ddcb-6b3aa9462783?t=1708498331536>

<https://www.navarra.es/eu/medio-ambiente/gestion-forestal/aprovechamiento-de-la-madera>

<https://www.navarra.es/eu/baso-suteen-prebentzioa>

<https://meteo.eu.navarra.es/>

<https://www.navarra.es/eu/medio-ambiente/inventario-de-gases-de-efecto-invernadero>

https://prtr-es.es/Informes/InventarioInstalacionesIPPC.aspx?Textolibre=Texto%20libre&idComunidades=68,&idProvincias=31,&idCuencas=&idRegistro=Todos&idInstalacion=Todas&idActividades=&tipoplanta=&ids_categorias=&idCategorias2=

5. Ekonomia berdea:

<https://trantsisio-energetikoa.nafarroa.eus/pages/datuak>

[mugikortasun-jansangarria _ Trantsisio Energetikoaren Ataria.htm](#)

https://nastat.navarra.es/eu/tablas_powerbi/-/tag/consumo-petroliferos-tipo

<https://www.sie.navarra.es/eu/>

6. Hondakinak:

https://nastat.navarra.es/eu/tablas_powerbi/-/tag/residuos-urbanos

<https://www.planderesiduosdenavarra.es/pages/inventarios>

<https://www.navarra.es/eu/web/oficina-de-prevencion-de-residuos/actualidad/boletin-circular>

7. Emisio-eskubideen salerosketa:

https://www.miteco.gob.es/content/dam/mitesco/es/cambio-climatico/temas/comercio-de-derechos-de-emision/instalaciones-fijas/Listado_Inst_cods_FaseIV_WEB.pdf

<https://www.renade.es/esp/>

Ingurumen legeria, halaber, lexnavarra webgunean kontsultatzen ahal da: <https://www.lexnavarra.navarra.es/indice.asp?s=52&p=12>.

Aurrekoaz gain, betetze aldera Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzko maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legearen 28.2 artikuluan jasotakoa, publikitate aktiboko betebeharraren mende dagoen ingurumen informazioa bildu eta argitaratzen da Nafarroako Gobernu Irekia webgunean.

<https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/gardentasuna/ingurumenari-lotutako-informazioa>

Jakinarazten da Departamentu honek asmoa duela 2023ko azken hiruhilekoko eta 2024. urteko Nafarroako ingurumen koiunturari buruzko buletin ahalik arinen argitaratzeko.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2025eko urtarrilaren 30ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00020. Galdera, Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoa sortzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoa sortzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Lurralde Kohesiorako kontseilariaren erantzuna

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulego berri bat sortzeari buruz (11-25/PES-00020). Hona Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilariak ematen duen informazioa:

1. Zerk eraman du departamentua atal eta bulego horiek sortzera?

Lehenik eta behin, argitu behar da Lurralde Kohesiorako Departamentuaren egiturazko aldaketak (azaroaren 11ko 104/2024 Foru Agindu bidez onetsi zen) ez dakarrela berekin Atal eta Bulego bat sortzea, baizik eta Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulego bat sortzea, 2011tik jadanik existitzen den Kontzesio Obren Kudeaketa Ekonomikorako eta Gastuaren Kontrolerako Atalari atxikia. Beraz, lanpostuko osagarria sortutako burutza bakarrerako da, hau da, Bulegorako.

Lurralde Kohesiorako Departamentuak Bulego berria sortzeko erabakia hartzea eragin duten arrazoiak espedientean dagoen Ekonomia eta Aurrekontu Kudeaketarako eta Gastuaren Kontrolerako Zerbitzuaren txostenean zehazten dira, eta hauek dira:

“Interes orokorrari laguntzea, Nafarroako Ubidearen proiektu estrategikoa sustatuz eta behar bezala kudeatuz, Kontzesio Obren Kudeaketa Ekonomikorako eta Gastuaren Kontrolerako Atalaren eskumenen esparruan, hari atxikita baitago bulego berria, eta Atal horri ematea gutxienezko egitura iraunkorra, beharrezko egonkortasuna

bermatzen duena nola ekonomiaren hala administrazioaren ikuspuntutik hainbeste areagotu diren haren eskumeneko gaiari behar bezala aurre egiteko, beharrezkoak izaten ahal diren beste postu mota batzuetako premia posibleak gorabehera”.

Atalak jadanik egiten zuen eta berez luzeak eta konplexuak diren A-12 eta A-21 autobien kudeaketa kontratuen kudeaketa ekonomikoari berriki gaineratu zaio Nafarroako Ubidearen askotariko faseen zereginen kudeaketa (1. fasea, 1. fasea handitzea eta 2. fasea), proiektu funtsezkoa baita Foru Administrazioarentzako, eta aski konplexua ere bai. Plantilla handitu gabe erantzukizun horiek gain hartzeak eragiten du une honetan Atalak administrazio-kudeaketako eta laneko bolumen handia izatea, eta horrek gaiaren inguruko ezagutza eskatzen du eraginkorra izan dadin; Atalean lan tekniko-ekonomikoetan diharduten gainerako langileek ezin diote gai horri heldu.

Beraz, zereginak areagotzearen ondorioz Atalaren antolaketa berrikusi behar da, aukera emateko egonkortasun eta iraunkortasun handiagoak izan ditzan bere gain hartutako zeregin berrien ondoriozko lanari behar bezala heltzeko eta eskumeneko gaien kudeaketa optimoa egiteko.

2. Orain arte nork betetzen zituen Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoari atxiki zaizkion eginkizunak?

Administrazio unitaterik ez zegoenez, zeregin administratiboak Ataleko teknikariek hartzen zituzten beren gain, horrek dakartzan gabeziekin. Azkenaldian egoera sostengaezina zen lan bolumenagatik eta kudeatu beharreko dokumentazio administratiboagatik, bulego berriak gainetik duen Atalak bere gain hartutako Nafarroako Ubideari lotutako zereginen ondorioz.

3. Bulego horren burutzari zergatik ezarri zaio ehuneko 65eko lanpostuko osagarria?

Osagarri hori ezarri zaio kudeatu beharreko proiektuen garrantziaren eta konplexutasunaren ondorioz, egin beharreko lan motaren ondorioz –gaiaren inguruko aurretiko ezagutza handia eta langile egonkortasuna eskatzen ditu–, izapidetu bitartean maneiatutako informazioarekin kontuz ibili behar delako (administrazioarentzako proiektu estrategikoa da) eta izapidetu beharreko dokumentazioaren eta espedienteen bolumenaren ondorioz.

Azpmarratu behar da hori dela bulegoko burutza horren osagarri bakarra, nahiz eta beste batzuen hainbat osagarri izan. Bulegoko burutza batzuek % 55eko eskusibotasuna dute, eta, horrez gainera, lanpostuaren osagarria; horrenbestez, osagarrien azken ehunekoa hizpide dugun kasuarena baino handiagoa da.

4. Foru administrazioan diren bulegoetako zenbat burutzari ezarri zaio ehuneko horretako lanpostuko osagarria?

Lurralde Kohesiorako Departamentuak ez dauka informazio hori.

5. Ohikoa al da bulegoak sortzen direnean Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulego-ko burutzari ezarri zaion ehunekoaren moduko lanpostuko osagarriak ezartzea bulegoetako burutzei?

Lurralde Kohesiorako Departamentuak ez dauka informazio hori.

Azpmarratu behar da Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoaren lanpostuko osagarria legezkoa dela. 251/1993 LFDaren 44.1 artikulua ezartzen duenez, "Lanpostuko osagarria eta horren zenbatekoa, zehaztuko diren lanpostu zehatzei erregelamendu bidez esleituiko zaizkie, lanpostu horien zailtasun, berariazko erantzukizun eta gainontzeko ezaugarrien arabera. Osagarri honen zenbatekoa ez da inolaz ere, behar den mailaren hasierako soldataren 100eko 75 baino handiagoa izanen".

Bestalde, 158/1984 FDaren 20. artikulua ezartzen du lanpostuko osagarria ezarriko zaiela zailtasun handia edo erantzukizun espezifiko duten edo prestakuntza tekniko berezia eskatzen duten lanpostuei. Osagarri horrengatik zenbatekoa plantilla organiko bidez finkatuko da, baina inoiz ere ezin izanen du gainditu kasuko mailako soldataren % 75.

Kasu honetan osagarri hori ezartzea erabaki da aurrez aipatutako arrazoiengatik.

6. Ohikoa ez al da burutzei bateraezintasuneko osagarria (% 35) edo arduraldi eskusibokoa (% 55) aplikatzea, baina inola ere ez % 65eko lanpostuko osagarria?

Bai, bulegoko burutza batzuek % 55eko eskusibotasuna dute, eta, horrez gainera, lanpostuaren osagarria; horrenbestez, osagarrien azken ehunekoa hizpide dugun kasuarena baino handiagoa da.

7. Burutza bati lanpostuko osagarri hori ezarri aitzin aldeko txostena egin al du Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak?

Bai. Burutza bati lanpostuko osagarri hori ezarri aitzin aldeko txostena egin du Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak.

8. Funtzio Publikoko nork justifikatu du lanpostuko osagarri hori ezartzea Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoari?

Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Gorteetako kide den eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikita dagoen foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, 11-25/PES-00020 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Horri buruz, Nafarroako Gobernuak Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariak jakinarazi du Egiturako, Plantillako eta Langileen Aldi Baterako Kontrataziorako Zerbitzuak honako hau adierazi duela:

1. Zerk eraman du departamentua atal eta bulego horiek sortzera?

Gai hau Lurralde Kohesiorako Departamentuaren eskumenekoa da.

2. Orain arte nork betetzen zituen Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoari atxiki zaizkion eginkizunak?

Gai hau Lurralde Kohesiorako Departamentuaren eskumenekoa da.

3. Bulego horren burutzari zergatik ezarri zaio ehuneko 65eko lanpostuko osagarria?

Gai hau Lurralde Kohesiorako Departamentuaren eskumenekoa da.

4. Foru administrazioan diren bulegoetako zenbat burutzari ezarri zaio ehuneko horretako lanpostuko osagarria?

Eskuragarri dagoen informazioaren arabera, eta Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak aztertutako aurrekariekin bat, gaur egun Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan ez dago berariazko osagarri hori esleituta duen bulego-burutzarik.

5. Ohikoa al da bulegoak sortzen direnean Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulego-ko burutzari ezarri zaion ehunekoaren moduko lanpostuko osagarriak ezartzea bulegoetako burutzei?

Antolaketa-egituraren eta ordainsari-politikaren alorrean Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak kudeatutako aurrekarien eta irizpide teknikoen arabera, Nafarroako Foru Komunitateko administrazioan ohiko jardunbidea izan da oinarritzko lanpostuei esleitzea lanpostuko osagarriak, haien ezaugarriari eta erantzukizun partikularrei jarraikiz, lanpostuak burutza sortu berriekin edo lehenagotik zeudenekin lotuta egon ala ez.

Komeni da adieraztea Nafarroako Foru Komunitateko langile publikoek betetzen dituzten lanpostuek ehuneko desberdinetako ordainsari osagarriak izaten dituztela, zeinak 251/1993 Legegintzako Foru-dekretuaren 40.3 artikuluan ezarritako ordainsari osagarrien batura diren:

“Lanpostuaren ordainsari osagarriak, hauexek:

- a) Lanpostuko osagarria.
- b) Zuzendaritza lanpostuko osagarria.
- c) Dedikazio eskusiboko osagarria.
- d) Bateriaezintasuneko osagarria.
- e) Lanaldiaren luzapeneko osagarria.
- f) Arrisku bereziko osagarria”.

Hori horrela, Nafarroako Foru Komunitatean dauden lanpostuen artean, batzuek informazio-eskariaren xede den lanpostuak duen ordainsari osagarria baino handiagoak, txikiagoak edo berdinak diren ordainsari osagarriak dituzte zenbait kontzeptu direla-eta.

6. Ohikoa ez al da burutzei bateraezintasuneko osagarria (% 35) edo arduraldi eskusibokoa (% 55) aplikatzea, baina inola ere ez % 65eko lanpostuko osagarria?

Gai horri dagokionez, 5. galderan azaldutakoa errepikatzen dugu.

7. Burutza bati lanpostuko osagarri hori ezarri aitzin aldeko txostena egin al du Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak?

Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak txosten bat eman du aurrekontuari dagozkion alderdiak oinarri hartuta. Egiaztatu du badagoela zuzkidura, eta ez dela gastua areagotzen, eta Lurralde Kohesiorako Departamentuko egitura organikoan unitate kopurua haztearen inpaktua aztertu du.

8. Funtzio Publikoko nork justifikatu du lanpostuko osagarri hori ezartzea Nafarroako Ubidearen eta Kontzesio Obren Bulegoari?

Lehen esan dugun eran, Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiak aurrekontu- eta egitura-alderdiei buruzko txosten bat eman du. Egiaztatu du badagoela behar besteko kreditua bulego berria finantzatzeko, eta ez dela gastua areagotzen, eta antolaketa-egituran hazkunde garbia unitate bat izatea ere aztertu du.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 14an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M.^a Amparo López Antelo

11-25/PES-00021. Galdera, Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketak pertsona juridikoei atxikitzeari edo enbargatzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketak pertsona juridikoei atxikitzeari edo enbargatzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n
Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuko 202500422 irteera zenbakia-rekin erregistratua, 2025eko urtarrilaren 21ean (11-25/PES-00021), askotariko informazioa eskatzeko Nekazaritza Politika Erkidearen ordainketetan pertsona juridikoei egindako atxikipenei eta enbargoari buruz. Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Pertsona juridikoei egindako atxikipenak eta enbargoak, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak 2020ko urtarrilaren 1etik eskaeraren egunera arte eginak, LGENF funtsen ondoriozko laguntzei lotuta, honako hauek dira:

IFK	Izena	Enbargo data	Zenbatekoa €
J31123433	SC GARDE SARRASQUETA CONSUELO Y	2023/05/15	120,00
J31239528	PIEROLA GARCIA EDUARDO Y JAVIER	2022/05/05	4.312,50
J31695836	OTAL MAMILO JOSE ENRIQUE E IGNACIO	2021/05/26	186,00
J31940505	SC GUINDULAIN GUERENDIAIN JOSE	2023/06/20	7.091,39
J31940505	SC GUINDULAIN GUERENDIAIN JOSE	2024/06/25	4.312,50
F71392989	BIOMA FORESTAL SOCIEDAD	2022/10/27	120,00

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n
Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00022. Galdera, jakiteko ea Nafarroako Gobernuak NUPekin noiz sinatuko duen hura 2025etik 2028ra bitarte finantzatzeko hitzarmena, 2024ko abenduaren 23an eman baitzen horren berri

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, 2025eko urtarrilaren 24ko 5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galde-

ra egin du jakiteko ea noiz sinatuko den 2025-2028 bitarte unibertsitatea finantzatzeko hitzarmena (11-25/PES00022). Hona Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

2025-2028 aldirako NUPren urte anitzeko finantzaketa hitzarmena datozen asteetan sinatuko da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 11n

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín